

## Arkitektura ikusgarritik desprogramatutako arkitekturara

**Garai batzuetan, arkitekturak era jarraituan garatzeko aukera izaten du eta nolabaiteko autonomia erdiesten du. Beste garai batzuetan, ordea, arkitektura aurrea hartzeko prozesuan egoten da. Aldatu diren oinarrizko gizarte baldintzek zalantzan jartzen dituzte arau eta ideia zaharrak, edo ezinbesteko ere egiten dute arkitektura zimendu berrien gainean jartzea.**

Gaur egun bizi garen garaian, bi ikusmolde horiek batera aurki ditzakegulakoan nago, hau da, arkitekturaren produkzio baldintzak kontserbadoreak dira, eta, aldi berean, ohiko egitasmo estandarrak zaharkiturik utzi dituzten gizarte baldintza berrietara egokitzea behartzen dute. Oinarrizko baldintza berrien barruan, bi gai aurkitzen dira, nagusiki: 1. Egunerokotasunaren munduaren mediatizazioa.

2. Aldaketa estrukturalak hiritasunean. Bi gai horiek galdera bat jarri dute mahai gainean, alegia, oinarrizko baldintza berriak zein neurritan diren sendoak edo ahulak, eta, edonola ere, zein jokabide eremu daukan arkitekturak bere produkzio baldintzen barruan.

### Mediatizazioa

Gutxi gorabehera 90eko hamarkadaz geroztik egiazta dezakegu arkitektura parekatu egiten dela ezohiko irudiekin. Irudi horiek halako moduan komunikabideetarako moldatzen dira, ezen arkitektura objektuek inorena ez den lurreko OHEak baitirudite, izaki estralurtarrek sorginduta baleude bezala.

Hiri ugari saiatu dira horrelako objektu harrigarrien bitartez identitate berria zehazten, era horretan ekonomia krisiaren eragina murriztuko den itxaropenez. Objektuen inguruko ideia finko horiek ez dira berriak arkitekturaren historian, ezta egiten zaien kritika ere. Gaur egun, hala ere, gaia ez da “objektua *versus* ingurunea” moduko diskurtsoa egitea (Manfredo Tafurik jadanik aurkeztu duen bezala), ezta forma guztiak arkitekturaren eta herri-tokien historiari abiaraztearen aurkako joera ere, 80ko urteetan zegoen betebehari maniakoa baitzen.

Komunikabideetan gauzaturiko objektuen inguruko ideia finkoak, beste esanahi bat dauka: lehenik eta behin, hiperkultura sortu duen eta mundu osoan hedaturik dagoen komunikabide sare baten barruan dago. Eta hiperkultura hori ez dago lotuta —eta hori da benetan bitxia dena— ez toki zehatz batekin, ez historia zehatz batekin. Kokalekuaren menpe ez dagoen hiperkultura horrek ere arkitektura mota bat sortu du, ikur orokorrean ia soilik komunikabideetan mugitzen dena, merkatu marka bat balitz bezala. Bigarrenik, objektuen ideia finkoa lotuta dago gizaratearen indibidualizazioarekin. Eta indibidualizazioa, bere aldetik, Ford aroaren ondoko masa produkzio batekin. David Harveyk “metaketa malgu” gisa deskribatu du. Hau da, masa produkzioa hedatu da, “lifestyle”ko etiketak eta markak erabilia, eta salerosketak egiten dituen merkatu bat gehiago sortu. Horri buruzko adibide bat bizimoduaren indibidualizazioa da. Pierre Bourdieuk frogatu du ez direla aberatsak eta jende dotorea soilik, inolaz ere, indibidualizatutako identitatearen inguruko interesa dutenak: arazoa ez da, are gutxiago, ederra ▶▶



*Bill Owens "Suburbia" 1972*



*"Simulacrum citi" proiektuaren argazki bat*

identitatearen industria espiritu negozioa da

edo itsusia izatea, garestia edo merkea izatea, *bereiztea* baizik. Besteengandik bereizteko aukera, alegia; hori demokratizatutako luxu moduko bat da.

Bereizte hori, ordea, salgaia ere bada, eta industria produktu bilakatu da; eta produktu horrek, hain zuzen ere, indibidualizazioa nahi duen eta agintzen duen gizartea zerbitzatzen du, bai itxuraz bai errealitatean. Izan ere, identitatearen industria espiritu negozioa da, eta aldi berean, askatzailea den zerbaitetarako aukera ere bai. Askatzailea izatearen funtsa da identitateak truka daitezkeela, eta horrela boterea galtzen dutela, gizartearen eta ekonomiaren arteko koordi-

nazioak erlatibizatu egiten diren neurrian. Antzekoa gertatzen da sinboloaren boterearekin. Horretaz geroago hitz egingo dugu. Identitatearen industriaren barruan garatu den arkitekturak toki pribilegiatua dauka, eta ez da horregatik erraz erosten, hau da, eksklusiboa da, eta komunikabideetan batik bat existitzen da. Arkitekturarentzat, globalizazioa eta indibidualizazioa eredu bihurtzeak esan nahi du arkitektura moldatu behar dela komunikabideetan nagusiki, eta ez errealitatean, ager dadin. Komunikabideetan gauzaturiko objektuaren ideia finkoa, hortaz, problematikoa da arrazoi horientatik. Eta hor ez dira soilik alde ilunak aurkitzen. Hala ere, berehala egiazta daiteke objektuaren ideia finko berriak auto-lilura bikoitza sortu duela —era arinean esanda—: arkitektura autoliluraturik dago, eta autoliluraturik daude, era berean, horrelako objektuen jabeak.

» Orain artekoaz, gaia bideratu besterik ez dugu egin, egiaz, objektuaren ideia finkoaren erronka gizarteari dagokiolako, batez ere, eta hirukoitza da, hurrengo alderdiak baititu: 1.- Kultura globalaren eta tokikoaren arteko aldea. 2.- Gehiegikeria sinbolikoa. 3.- Bideratze globalak, arkitekturaren ere bai, errealtateak galtzea eragiteko ahalmena. Lehenengo erronka sortzen da nazioen arteko mugak ezabatzen direnean; zehatzago esanda: kultur anbivalentziatik sortzen da, toki kulturak eta hiperkultura globala aldi berean egotetik. Aldiberekotasun horrek zerikusia dauka, azaletik soilik, globala denaren eta eskualdekoa denaren arteko kontraesanarekin. Ez dira gauza bera aldiberekotasuna eta *International Style*, azken horrek munduaren ordena bakarria izatera mugatu baitu. Aldiberekotasunak mundu osoko arkitekturen ahuldadea erakusten digu —hala nola, Berlingo Potsdamer Platz—, baita Holandako arkitekturaren ahuldadea ere, berritzailea izan arren hiperkultura globalean bakarrik oinarritzen baita, eta bitartean, hala ere, erdietsi baitu irudien merkatu globalak nahitaez erredundantzia eta auto-mugatzea eragiten dituela ulertaraztea. Bost axola hori guztia globalizazioaren euforia naif, patetismo neoliberal edo merkatuarekin ados dagoen pragmatismoa den; mundu zabaleko sareaz toki eta gizarte orientaziorako alderdiak era automatikoan desagertzen direla sinestea gezurrezko ondorioa da. Nazio eta toki ezaugarriak ez dira inolaz ere desagertzen, aitzitik, identitate-sortzaileago bihurtzen dira, baita monumentalago ere; baina, aldi berean, eta atzerazineko eran, kultura transnazionalak gainjarri egiten dira. Erronka errealtate bikoitza da, alde batetik komunikabideetako errealtatea, eta bestetik erreala dena. Mundua bikoitza izate horren aurrez aurre jarri da orain arkitektura. Eta, ildo horretan, bi baldintza daude: Lehenengoa, norberaren kulturaren esanahi esparrua lekualdatzen da —bat besterik ez da beste askoren artean—. Bigarrena, arkitektura, gaur egun ere, komunikabide mota bat da. Horrek esan nahi du esparru globalean kultur produktu bat dela, beste edozein bezalakoa. Eta haren erreferentziak mundu osoan eskura daitezke, truka daitezke, eta burges hedonistek eta kazetaritzak aztertu egiten dituzte bizigarriak diren euren baloreen arabera.



### Komunikabideen tranpa

Zein ondorio izan ditu mediatizazio horrek azkeneko hamar urteotan? Nire iritziz, bi alderdi kontrajarri dituen ondorioa, gainera: lehenik eta behin, arkitektura era saihestezinean bideratu da nazioartekotasunera eta komunikabideetara —geroago hipzide izango dut gai hori—; eta bigarrenik, aurkako alderdia, gogor egiten diona, hau da, arkitekturari buruzko eztabaidaren kapsulamendua. Nik uste dut —beharbada tesi harrigarria da, baina frogagarria, alderdi enpirikotik— arkitekturari buruzko elkarrizketa —hots, nola eta zer—, hain zuzen ere, ez dela globala, aitzitik, herri bakoitzean soilik sortzen baita eta herri bakoitzean bakarrik sor baitaiteke.

Arkitektura da, seguruena, hiperkultura globala gailentzearen aurkako arma estetiko bakarra. Baina helburua ez da kontrakultura sortzea —hori naif izango litzateke—, aldi bereko kultur existentzia egotea baizik, ezberdintasunaren arkitektura, alegia. Kontzeptuak zerikusia dauka arkitekturari buruzko teoriaman maiz eztabaidatu den toki eta espazioaren nahiz espazio eta denboraren bereizketarekin. Kontzeptua, era berean, erronka gisa uler daiteke, hain zuzen ere, denboraren eta ez-denboraren artean, tokiaren eta munduaren artean, nostalgieren eta oroimenaren artean, arkitektura errearen eta arkitektura birtualaren artean ezberdintzeko.

Hau da, ez aurkakoez, baizik eta ezberdintasunez, komunikabideen eta benetako errealtatearen paradoxaz arduratzen den arkitekturara. Ingurune horretan argitzen da, baita ere, arkitekturari buruzko eztabaidek hartu duten gehiegizko garrantzia.

Adibide bat. Suitzan, arkitekturaren garapena ez litzateke gertatuko bere eztabaidak edukiko ez balitu. Are gehiago, eztabaidek arkitektura duela asko hezuramitu dutela baieztatu daiteke. Beste aldetik, egungo eztabaida globalak —hala nola, Pontresina edo Any biltzarrak— antolatzen dituztenek ere aitortu dute ez dutela ezer gauzatu. Egin duten gauza bakarra izan da diskurtso globalizaturik bat ere ez dagoela ohartaraztea. Horrela uler daiteke, hortaz, arkitekturaren inguruko gertaera globalak, berez, arkitekturaren enpresen produktuak saltzeko azokak izatea, Veneziako Biennale, esate baterako.


Hala ere, Suitza da, era berean, komunikabideen aldetik irudien erabilera zertan den, toki arkitektura munduko arkitektura nola bihurtzen den adierazten duen adibidea. Sistema honako hau da, alegia, arkitektura irudia *sekula-bertan-egon-gabe* denaren komunikabide estatusen aztertzea, edo bestela esanda, irudi bat da, berrikuntza eta ikur global gisa zabal daitekeena. Suitzan tradizio puristatik sortu dena —muturreraino eramandako murrizketa— *dink* londrestarren *radical chic* bihurtu da bat-batean, eta gero —seguruena *feedback* moduan— itxura globala, baita Suitzan ere. »

»  
Komunikabideen mota horretako transferentziek parez pare jartzen dituzte ezberdintasun kulturalak eta dimentsiobakarra dena: horrela, historia bera, ezustean, munduko kontaketa bilakatzen da, museoari dagokiona ikuspen, e.a.

Horrek, bestalde, bereziak diren arkitektura objektuei buruzko katalogo global bat egotea eragin du. Krisiak astindutako hiri ia guztiek eskatu zuten 90eko urteetan enkarguren bat. Hor, garrantzia zeukana ez zen benetako eraikuntza, nik komunikabideetako azaleko eztanda izendatzen dudana baizik. Bien bitartean, zalantzan jar dezakegu izandako eraginkortasuna. Izan ere, nabarmentasunaren ekonomiak badauka bere arauak, batere bakunak ez direnak.

Komunikabideen tranpaz ere hitz egin daiteke. Horren adibide dira Bilboko Guggenheim Museoa edo Luzernako Kultura Zentroa. Komunikabideen ageraldiaren ondoren, bi hiriek arazoak dituzte, eta ez soilik euren ikur globalekin: bisitariak murriztu eta funtzionamendu gastuak handitu egin dira, eta politikariak, orduan, bulebarreratze arkitektoniko baten biktima balira bezala agertzen dira. Unearen garaitzak, luzera begira, distira galtzen du.

Alabaina, beste ikuspegi batetik, ikuspegi tragiko batetik, nabarmenkeriaren ekonomia arkitekturarako are kaltegarriagoa da. Izan ere, nabarmenkeria ezin da, funtsean, komunikabideen irudi jarriaren bidez neurtu. Horrelako irudiak, izan ere, azkartasunez ezabatzen dira —arkitektura oso motela izaten da beti—. Eta berezia den guztia, nolana ere, deuseztatu egiten da errepikapenaren errepikapenaz. Bilbo zen, aldi berean, arkitektura objektu bereziaren hasiera eta bukaera. Beste hitz batzuek esanda: komunikabideek legitimaturiko proiektuak ezin du estilorik aurkitu; arrakastatsua da pantailan errealtatean baino.



komunikabideek legitimaturiko proiektuak ezin du estilorik aurkitu; arrakastatsua da pantailan errealtatean baino.

### Postfuntzionala, postsemiotikoa

Mediatizazioak eragindako lehenengo ondorioa, beraz, arkitektura komunikabideen tranpan erortzea izan da. Bigarrena oso bestelakoa da, eta nire ikuspegitik produkzio baldintza gogorren arteko bat da. Hau da, gu, eguneroko irudi jarioan, gainezkatu egiten gaitu, aspalditik, ikur guztiak esanahiekin koordinatzeko ahaleginak. Ezin da argitze lanik ia burutu, eta horrela ikurrak esanahietatik bereizten dira. Horrek daukan desabantaila da zeinuak eta irudiak ia mutu, ia baliaezin bihurtzen direla. Horrek, baina, abantaila bat dauka, alegia, sinbolikoa denak boterea galtzen duela. Gerta daiteke, hortaz, behin betiko ikur sistemarik ez egotea. Hori baliagarria da, bereziki, arkitekturaren kasuan. Horregatik, arkitektura mugitzen den esparru postsemiotiko edo postadierazgarri batez hitz egiten dugu.

Horrekin lotuta dago bigarren erroka, nik gaididura sinboliko izendatu dudana. Edo, zehatzago adierazita, gaididura sinbolikoa arkitekturaren inguruko gai estrategiko gisa. Bigarren erroka honek lehenengo osatzen du, alegia, toki kulturaren eta kultura globalaren arteko ezberdintasuna.

Horri buruzko adibidea jarriko dut, erroka horretatik nola ihes egin daitekeen azaltzen duena. Berlingo Museo Judutarak, arkitektoen arabera, mehatxuaren sentimendua deuseztatu behar duen konnotazioa dauka —beraz, normaltasunaren aurkako esperientzia emozionala—. Konnotazio bera erabili du arkitekto berak, oraingoan merkataritza gune baterako eta arte museoetarako. Era horretan, arkitektoak irudien higadura ziurtatzen du, baina, ez hori bakarrik: ziurtatu egiten du, baita ere, sentimendu bultzada jakin batzuk arkitektura formen bidez behartzerik edo manipulatzetik ez dagoela. Horrek, jakina, zerbait lasaigarria dauka, kritikotzat hartutako formatatik aisialdiko dibertimendua sortzen baldin bada, eta arkitektoek berezitasun gogaikarriak ere suntsitzen baldin badituzte.

Ez litzateke publikoa inoiz gutxietsi behar. Publikoa, gero eta gehiagotan, obren autore bilakatzen da, berak emandako argitasunez parte hartzen duelako. Umberto Eco bere *Opera aperta* lanean jadanik deskribatu duen gertakizuna; baita Michel Foucaultek ere, beranduago: "...egilearen aurpegia pixkanaka desagertzen da hondarrean."

Azkenik, badago mediatizazioaren hirugarren ondorio bat, ondorio ahula, hala ere. Lanbidearen irudiarekin lotuta dago. Mediatizazioak arkitektura despolitizatzen lagundu du.

Lehenik eta behin ulergarriak diren arrazoiengatik, izan ere, globalizatutako arkitekturarako ez dago behin betikotasunik, ez kulturaren ez politikan.

Horrela, Koolhaas-ek, bere Prada saltoki handietan, Gramsci komunista zaharra aipa dezake graffiti gisa; edo sindikatuak debeka ditzake lurralde batean, ez direlako bere ideia egokitzen. Hori zehaztugabea den zerbait bezala, edo *superdutch* joera gisa ulertzen den, guztiz hutsala da. Dokumentaturik dago, bakar bakarrik, *global player*-en errealitatea galtzea, edonola ere balizko ironiaren bitartez areagotu egiten dena. Horrek egin dezakeen bakarra, errealitatea galtze hori komunikabideetan izango duen iraupenari buruzko jakin-mina piztea da, oso erabilia den *global joke* gisa funtziona dezan arte.

### Hirigintza, bere artifizialtasunaren mugen lekualdaketa gisa

Aldatutako baldintzek beste eredu batzuk ezarriko dituzte arkitekturaren, etorkizunean. 90eko hamarkadako arkitekturak galdu duen eredu, gizarte errealitatea pixkanaka desagerrarazi duen eta gaur egun historiaren gertakizuntzat hartutako arkitektura den era berean. Arkitektura, are gehiago, gizartearen legitimatze presio benetan gogorren gainean nagusitu beharko da; frogatu behar baitu modako lantegietarako itxura berritzea baino askoz ere gehiago egiteko gaitasuna daukala. Horrekin, loturik geratu dira gizartean garrantzitsuak diren gaiak buruzko galderak. Hirigintzaren antolamendu aldaketa estrukturakalak adibide garrantzitsuak dira. Era honetan deskriba daitezke puntu garrantzitsuenak laburbilduta:

1. Gaur egun, azpiegiturek eta eraikuntzek era azkarrean egokitzeak aukera edukitzea eskatzen dute. Japonian badago jadanik hamabi urteko amortizazio epe bat; hori, hain zuzen ere, ezin da eredu izan, baina funtzioen dinamizari eta ezegonkortasunari erantzuten die. Areago, bizitzea, lan egitea eta aisialdia izan diren funtzio klasikoak bereizte lausotu egiten da gero eta areago. Horrela, hirien esparru eta funtzio egitura ez da antolatzen ordenaren inongo printzipio idealistari ezta inongo irudi bateraturi jarraiki. Hiria antolamendu esparru gisa ulertu behar da, batik bat, bere barruan komunitate uharteak eta bizimoduei buruzko irudikapen ezberdinen uharteak biltzen dituen barrutia. Gainera, lekuarekiko loturak behin-behinekoago bilakatu dira. Eta esparru egonkorak ere, gaur egun, lotura kontestuala falta du. Erabileraren dinamizari ezin zaio erantzun "Container" ideien irudikapenaren bidez soilik (Rem Koolhaas); izan ere, dinamika horrek ez du objektua barne hartzen; askoz ere espazio zabalekoagoa baita. Horregatik, etengabe berreraikitzen ari den hiriaz hitz egiten dugu. Hiriak ez dira postindustrial bakarrik bilakatu, postfuntzional ere bihurtu dira.

2. Egitura aldaketak badauka, era berean, beste zerbaitekin zerikusirik; alegia, hiri tradizionala, tokikotzat hartuta, dauden aukeren arteko bat besterik ez da. Kokalekuen inguruko lehiakortasuna hedatu egin da eskualdeetan, aglomerazioetan eta nazioetan. Europarren % 70 bizi dira, gaur egun, hiritartutako paisaietan. Horrez gain, aglomerazio asko benetako bizitegi bihurtu dira. Horixe frogatzen du, besteak beste, Europako hiriguneeen inguruko garraio mugimenduak handitu egin direla, eta aitzitik, hiriguneetara doazen garraio mugimenduak egonkor mantendu direla, gehiago edo gutxiago, edo murriztu egin direla adierazten duen zantzuak. Hau da, hirien inguruan, independenteak diren komunitateek osaturiko bizitegi-eraztun bat eratu da, bere hiri azpiegiturak dituen. Alabaina, gu ez gara hemen hirien ingurumarietaz hitz egiten ari, aglomerazioaren hiritartzeaz baizik. Bizitegi egiturak sare modukoago bilakatzen ari dira, orekatuago eta ez hain zentralizatu.

3. Izan ere, hirigintza ez dago jadanik hiriguneetara mugaturik, eta historiarik gabe existi daiteke. Bestela esanda, teknikaren aldetik, badago hiri-herriak sortzea. Heideggerrek leku batean bizitzaren erabilgarritasun teknikoaz hitz egin zuen, eta horrekin agur egin zion bere eraikuntzarako *genius loci*-ri. Tokiarekiko lotura ez da funtsean eta berezko forman dagoeneko existitzen, ez lotura kulturala ez lotura materiala. »

»  
Hirikoa denaren hibridazioaz hitz egin deza-kegu, eta horrela, hirigintza bere artifizialtasunaren mugekin topatzen da. Horren ondorio bat hirikoa denaren kapsulamendu espaziala da. *Mall*-etan, *event-city*-ak hirien irudi bilakatzen dira, esparrua eta tokia bereiztuta. Gene mutazioa izan duten hiri zelula horiek kritika daitezke, eta horrek ez du ezer aldatzen hurrengo baieztapenean, hain zuzen ere, hiri zelulek atzerazineko gizarte prozesuak eta finkalekuen garapena islatzen dituztela, eta horiek euren aldetik lan egiteko modu eta bizitzeko ohitura berriekin, besteak beste, zerikusia dutela. Hobeto esanda, galdera bat sortzen da, alegia, ea birtuala denaren ondoan, espazio arkitektonikoak ere egon behar duen.

4. Hiriaren ahultasun politikoa bere erabiltzaile gehienak inguruko toki edo eskualdean bizi izatetik dator. Biztanle horiek hirigunee-tako bezeroak dira, dela langileak edo turistak direlako, dela bertan kultura kontsumitzen dutelako. Ia ez dago hiritarrik, oinarrian hiriko egunerokotasunaren alde dagoenik. Eta horren arabera bideratzen da hiriko bezeroen goi mailako desio espezializatuen inguruko eskaintza. Hirigune asko, 300.000 eta 500.000 biztanle bitartekoak, milioi bat edo baita bi milioi bezerok ere errebindikatzen dituzte.

Gai eta galdera horiek politika arlokoetz gain, arkitektura eta hiri eraikuntza alorretako erantzunak ekartzen dituzte berekin. Oinarri horren aurrean, berriro definitu behar dira hainbat kontzeptu, hala nola, trinkotasuna, tokia-herria, bizilekua, paisaia, tipologia, morfologia, egiazkotasuna eta identitatea. Esparru horri buruz ezin dut zehaztasun gehiago eman. Hala ere, ohartarazi nahi dut kontzeptu horiek ez dutela bakarrik birpentsatzea eskatzen, beste jokabide bat ere eskatzen dute. Lausotasunari heltzen ere ausartu egin behar da, zehaztugabetasunari, alegia. Kontzeptuen gaineko estandarrak gero eta zehaztugabeago bihurtzen dira: egiazkotasuna ez da zehatza den zerbait, egiazkotasuna, edonola

ere, paradoxatik zerbait daukana da; edo tokia-herria ez da besterik gabe kultura edo irudi bat; beharbada, oroitzapen gisa existitzen den tokia dago, edo hibridoa den tokia; kontuan hartu behar da, bestalde, hirien balio handitzea, seguruena, balio galtzea dela. Nolanahi ere, ezin dugu arkitekturaren barruan irtenbideez hitz egin, zerbait baldin bada posibilitateak baitira, eta, era berean, ezin dugu espazioaren ordenaz hitz egin, posibilitateen espazioez baizik. Louis Kahn mistikoak berak zeukan iritzia zen arkitektoa ez dela formak bilatzen dituen gizakia, kontzeptu bilatzailea baizik. Egiaz, kontzeptuak argitzea lehenengo urratsa da arkitektura ikuspegira iristeko. »



L. Moreno Mansilla, E. Toñón "Art Museum" 1998

berriro definitu behar dira hainbat kontzeptu, hala nola, trinkotasuna, tokia-herria, bizilekua, paisaia, tipologia, morfologia, egiazkotasuna eta identitatea.

## Boterea eta espazioa

Zein da, bada, erantzuna, arkitekturaren ikuspegitik, hirikoa denaren mediatizazioaren eta egitura aldaketaren aurrean? Erantzun bat abenturaren arkitektura da, eta oso zabalduta dago hiri simulazio, *mall*, parke tematiko, e. a. gisa. Abenturagune horiei egin lekizkiekeen kritika guztien aurrean, kontuan hartu behar da gizarte erakundeez ari garela. Hau da, ez dira guztizko arkitektura aurkikuntzak, areago aldaturiko bizimoduaren adierazpenak baizik, egunerokotasunaren mediatizazioarenak, bere mugen kontra estropezu egiten duen bizimodu hiritarraren artifizialtasun berriaren adierazpenak, eta sakon-sakoneko egituretan atzerazina den gizarte aldaketaren beste alderdi askoren adierazpenak.

Horri dagokion tipologia aldiriak eraikitze baten jatorrizko alderdia da, eta aldiriak eraikitze horrek erdietsi du ez soilik bere paisaia edukitzea, baita bere identifikazio eredu ere. Irudiek ezer azaltzen ez dutenean, horrelako lekuek "ezagutzaren eraginak eta identifikazio eskaintzak" eskaintzen dituzte, "haluzinazioak eta memoria nahasmenduak agertzen diren aldaketarik gabeko nahasmahas batean..." (Kai Voeckler). Bestalde, berezitasun tipologikoa espazioaren osoko jabetzeari buruzko galderaren inguruan mugitzen da, eta espazio hori xehetasun guztietan kontrolaturiko eszenifikazioa ahalbidetzen duen hiri kapsulamendu modukoa da. Hirietako espazio publikoari balioa handitu nahi zaio: funtzioak, forma zaharkituak eta irisgarritasuna xehetasun guztiez arautzen dira, eta arrotza eta kontrolaezina dena, aldiz, muga barrutik kanporatu.

*Mall*-ek, parke tematikoez eta antzekoez are perfektuago bilakatzen dute gizarte segregazioa; ez, ordea, *gentrifications* edo *gate communities* izenekoek egiten duten bezala; askoz ere ikusezinaoak diren eta gizarte iragazkortasuna iradokitzen duten forma eta bitartekoez baizik, eta horiek gizarte iragazkorragoak dira, egiatan, segregazioaren forma zaharrago batzuk baino. Espazio tipologia hori, halaber, Ford aroko gizarte ereduarekiko bereizkuntza dagoela ikusi daiteke: estatuko araudi paternalisten bidezko "gizarteratzea" bereak diren mugen barruan arautzen den gizartearen homogeneotasun bereiztuaren gaintetik gauzatzen da, eta aldi berean, kalkulagarria den agerikotasuna ordezkatzen du, bazterketaren arau nabari eta fisiko gisa: abenturaguneetako irisgarritasuna nahiz irisgarritasunik eza ulertzen da, aurretiazko berezko hautespen sozial, etniko eta gustuen araberkia egitearen ikuspegitik. Hori onartu daiteke, baldin badakigu mundu horietan zer aurki dezakegun: *hiperkultura globalaren panoptiko* bat, performance moduan eta kapsulamendu espazialaren barruan eraiki dena. Fikziozko mundua, berez

sortzen dena eta bera sorburu duena; edo mundu zabaleko tokiak, toki ingurumariak eta nazio ingurumariak bertan desagertu direnak. Horren barruan daude Disney-World, saltoki handiak eta Las Vegasko Hotel Bonaventuraz gain, baita arkitektura berezitasunak ere, hala nola, Liebeskinden Judutarren Museoa, Koolhaasen Educatorium-a, "bentako" abentura arkitekturak, batik bat, Zumthor-en *Valsler Therme*, eta museo bihurtutako hirigune zaharrak.

Testuinguru horretatik kritika bat sortu da, arkitektura alderdiak bakarrik barne hartzen dituena, zezelka ari dena eta, antza, kulturaren aldetik pesimista den jokaera adierazten duena. Tranpa bihurtzeko, Berlingo Potsdamer Plätzen, esate baterako, XIX. mendeko itxuraz, XXI. mendeko kontsumo eta abenturagunea eraikitzen bada. Hala ere, horrelako berreraikitzeak, berez "kritiko" gisa ulertzen denak, gauzatu du, beharbada, iraganeko gizarte burgesaren mina, aspalditik fikziozko abenturaguneetako errepertorioa dena; eta hor, tranpa itxi egiten da bat-batean. Gune horietan, hiri europarraren gainbeheraren betiko promesa antolatuta da aisialdi-gozamen gisa, eta gaur egun alor horretako gertakizunik eta imitaziorik asperragietakoak dira. Okerrena da eszenifikazio horiek ez direla *arkitekturaren ikuspegitik bereizten*, soilik gustuaren ikuspegitik baizik. Patua errepikatzearen beharra da. Hala ere, nik ez dut abenturaguneetako arkitektura kritikatu. Jakin behar den bakarra da zer egitera ausartzen garen. Hau da, jakin behar dugu ordezkoak beti ordezko direla. Hortaz, ez da harritzekoa komunikabideen enpresek eta propaganda arlokoek abenturaguneetako eta atzera begirako arkitekturak gero eta maizago definitzea, haiek, agian, ordezkoa modu eraginkorragoan ematen dituztelako.

## Aukerarako espazioak

Dena dela, nire iritzia ere bada jokaleku bat badagoela, gai berberekin beste era batez arduratzeko, *post-* edo *-ismo*ei atzera heldu gabe. Hitz egin liteke *desprogramatutako arkitekturari* buruz, estetikoki ez baita gidaririk, barnean ez baita bizi pedagogiarik, eta ez baita aldez aurretik funtzionalki definiturik, nahiz eta irudikoak diren indarrezko ekintzak egin; arkitektura horrek aukerarako espazioak eskaintzen ditu. Gizarte prozesuek ezartzen dute eskala arkitektura horretarako. Prozesu horiek, jakina, ez dira planifikagarriak, eta galdera anitz uzten dituzte irekita. Arkitektura, batez ere, oinarria da. Ez zaie aldez aurretik emandako formei jarraitzen, aitzitik, saiatu egiten da ahalik eta informazio, egintza eta gai gehien bereganatzen, gero horiek guztiak egitura espazio batean lotzeko.

Ahal den gutxien zehazten duen eta jabetzea eta jabetzeko moduak askoz ere irekiago uzten dituen egitura espazioan, hain zuzen. Era honetan bihurtzen da forma *superforma*: guztiz osoa da erabiltzeko eta ez da erabat nahikoa subjektiboki horrez jabetzeko, eta aski konplexua da aurrea hartzeko gauza izan dadin. *Horrela, hiri nahiz arkitektura espazioa era honetan zehazturik geratzen da, alegia, espazioa, etengabe, jabetzaren bitartez interpretatua izan daiteke*. Superformak, azkenik —aurrefabrikatutako giroarekin edo eraginaren estetikarekin alderatuta—, jokaleku argia ere eskaintzen du, etiketaren ikuspegitik ere baliotsua dena. Plan eta irudi gaindidurak ekoizten dituen okerreko barrutian sartu da —horrelaxe erakusten baitu desprogramatutako arkitekturak—, jario arkitektoniko eta urbanoa loditzen duelako.

Beste arkitektura norabide batzuek komertzialki hobeto irauan balezake ere —nik hori zalantzan jartzen dut, hala ere—, daukaten prezioak ez du zentzurik, inondik ere; ez etiketaren aldetik ez erabilgarritasunaren aldetik. Berezi hezikuntza eta kultur politikaren ikuspegitik, arkitektura horiek zaharkituta geratu dira, modaren eta gertaeren industriaren barruan berez arautzen direlako, jakina.

90eko hamarkadako arkitekturari agur egitea, beraz, plazer bilaka daiteke. Nolanahi ere, gizartearekiko konexioa aurkitu behar da —nahita edo nahi gabe ere—, eta hori ez da soilik abantaila arkitekturarako, existentziaren aldetik ere behar-beharrezkoa izango baita. ❧

ERNST HUBELI arkitektoa da. Zurichen bizi da.